



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 13a

43. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exigitu diezaion Espainiako Estatuak COVID-19aren aurkako txertoen patenteak aldi baterako liberalizatzearen aldeko jarrera har eta defenda dezala Europako Batzordearen eta MMA-Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da umetokiaren lepoko minbizia goiz detektatzeko populazio-programa bat ezar dezan, eta bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak, pandemian zehar bertan behera utzitakoak, berreskuratzeko plan bat ezar dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kontu-hartzaile nagusiak jarritako eragozpen baten desadostasunari eta Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa baiesteari buruz 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitortpena egin dezan, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da COVID-19aren aurkako Txertatze Plana berrantola dezan. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da osagarri bat bidera dezan, autonomoen, enpresa txiki eta ertainen eta nekazaritzako elikagaien enpresen zenbait kolektiborentzako laguntza-sorta baten bitartez, baldin eta gutxienez ere % 30eko fakturazio-beherakada jasan badute. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da trebakuntza eta prestakuntza emozionaleko plan bat gara dezan plaza itunduak dituzten egoitzetako langileentzat. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da energia berriztagarriak sortzeko proiektuen garapenera laguntzeko ingurumen legeria bat presta dezan. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeko, emakumeen aurkako indarkeria-adierazpide berriak sartzeko. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (14. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari exigitu diezaion Espainiako Estatuak COVID-19aren aurkako txertoen patenteak aldi baterako liberalizatzearen aldeko jarrera har eta defenda dezala Europako Batzordearen eta MMA-Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari exigitu diezaion Espainiako Estatuak COVID-19aren aurkako txertoen patenteak aldi baterako liberalizatzearen aldeko jarrera har eta defenda dezala Europako Batzordearen eta MMA-Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Osasun krisi global baten aurrean gaudenez, konponbide globalak behar dira. COVID-19ak eragindako pandemiaren aurrean, zeinak 2,5 milioitik gora bizitza eraman duen dagoeneko, txertoak dira itxaropen nagusia munduak, herrialde guztiek eta bertako gizarteek pandemiari amaiera eman diezaioten. Beraz, txertoak ondasun komun globala dira, ahalik eta azkarren ororentzat eskuragarri egon beharko lukeena.

Baina helburu hori betetzetik urruti gaude, gaur egun txertoen eskuragarritasuna urria eta muga-

tua delako. Ekoizpena enpresa farmazeutiko gutxi batzuen eskuetan metatzen da, eta banaketa herrialde aberatsek arpilatzen dute. Horrek ekarri du herrialdeen artean banaketa eta txertatze desberdina izatea, txertoen eskuragarritasuna mugatzen baita haiek ordaintzeko ahalmen ekonomiko eta baliabide nahiko duten herrialdeetara, bidea irekiz farmazia-konpainiek, ekoizpenaren monopolioa duten horiek, espekulazioa egitera.

Mugarik gabeko Medikuek erakundearen arabera hegoalde globalean hamar pertsonetatik bederatzik ez dute COVID-19aren txertoa jasoko 2021ean. Dukeko Unibertsitateko Osasun Globalaren Berrikuntzarako Zentroaren arabera, txertoen erdia baino gehiago herrialde aberastuek erosi dituzte, munduko biztanleriaren % 14 besterik biltzen ez badute ere. Egoera hori guztiz bidegabea eta elkartasunaren kontrakoa izateaz gain, oso arrisksua ere bada herrialde guztientzat.

Izan ere, OMEk ohartarazten duen moduan, munduko populazioaren gehiena ahali eta denbora laburrenean immunizatu ezean, birusa mutatu egingen da, jadanik gertatzen ari den bezala, eta txertoek eraginkortasuna galdu ahalko lukete. Eta guztiok, estatu aberastuetan zein pobretuetan, arriskuan egonen ginateke berriro eta pandemiak aurrera egingen luke, eta harekin batera bere ondorio izugarriak, osasun, gizarte eta ekonomia arlokoak.

Urriari Indiak eta Hegoafrikak MMEri eskatu zioten bertan behera uzteko aldi baterako, pandemiak dirauen bitartean, MJIEA-Merkataritzarekin erlasionaturiko jabetza intelektualeko eskubideen alderdiei buruzko Akordioan bildutako zenbait betebeharrak, alegia, txertoetarako patenteak. MMEren akordioak berak ezartzen du haiei uko egin

ahal zaiela salbuespenezko inguruabarretan, eta horrelakoa da oraingo hau, zalantzarik gabe. 100 herrialdek babestu zuten ekimena; botere-tsuagoak bai, baina askoz gutxiago izan ziren aurka agertu zirenak, horietan barne Estatu Batuak eta Europar Batasuneko guztiak.

Hegoafrikak eta Indiak proposatutako salbuespenak erraztuko luke jabetza intelektuala eta ezagutza partekatzeko aukera. COVID-19aren aurkako txertoen ezagutza eta teknologia partekatzea ahalbidetuko luke, bai eta elkarlana ere, zeinak areagotuko eta azkartuko lukeen COVID-19rako txerto, proba eta tratamenduak eskuragarriak, irisgarriak eta ordaingarriak izatea mundu mailan.

Aldi baterako liberalizazio hori onesteak ahalbidetuko luke txertoak ekoiztea eta banatzea eskala globalean eta, are garrantzitsuagoa, eskala globa-

leko immunizazioa. Txertoak ondasun komun globala izanen lirateke, kutsatze, hildako eta pandemia larriagotuko lukeen aldaera gehiago ekidinez.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Espainiako Gobernuari exigitu diezaion Espainiako Estatuak COVID-19aren aurkako txertoen patenteak aldi baterako liberalizatzearen aldeko jarrera har eta defenda dezala Europako Batzordearen eta MMA-Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean, elkarlana ahalbidetze aldera, txertoak areago eta azkarrago eskuragarriak, irisgarriak eta ordaingarriak izatea.

Iruñean 2021eko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da umetokiaren lepoko minbizia goiz detektatzeko populazio-programa bat ezar dezan, eta bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak, pandemian zehar bertan behera utzitakoak, berreskuratzeko plan bat ezar dezan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita umetokiaren lepoko minbizia goiz detektatzeko populazio-programa bat ezar dezan, eta bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak, pandemian zehar bertan behera utzitakoak, berreskuratzeko plan bat ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita umetokiaren lepoko minbizia goiz detektatzeko populazio-programa bat ezar dezan, eta bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak, pandemian zehar bertan behera utzitakoak, berreskuratzeko plan bat ezar dezan.

Nafarroa nazio mailako erreferentea izan da bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programei dagokienez.

Martxoaren 31n Koloneko Minbiziaren Munduko Eguna izanen da.

Koloneko minbiziagatiko hilkortasuna murrizteko neurri eraginkorra detekzio goiztiarreko programa ezartzea da. Programa horrekin, fase goiz-

tiarrean diagnostikaturiko koloneko minbiziaren biziraupen-tasa % 90etik gorakoa da, baina % 50era jaisten da gaixotasunaren fase aurreratua-goetan. Nafarroan, programari 2013an ekin zitzaion. 2019an % 75,16ko estaldurara iritsi zen, gomendagarria den % 65etik gorakoa baino askoz ere zabalagoa. 2019an, eginkarrietan odola detektatzeko test positiboaren tasa % 4,58koa izan zen, eta eginkarrietan odola detektatzeko test positiboaren ondoren kolonoskopia egiteko bidalketa-tasa nahiz kolonoskopia-onarpenaren tasa %96tik gorakoa izan zen.

Nafarroako Ospitaleguneko kolon eta ondesteko minbiziaren diziplinarteko unitateko emaitzei buruz argitara emandako azterlan batek argi uzten du pandemiaren lehen ehun egunetan diagnostikaturiko kolon eta ondesteko minbizi kasu berriak aurreko urteko aldi berean diagnostikaturikoak baino % 48 gutxiago izan zirela. Aldi horretan, screening bidez diagnostikatu ziren horietatik % 5, 2019ko % 33aren aldean, eta areagotu ziren larrialdietan diagnostikaturiko minbizi kasuak (% 12,1 eta % 3,6, hurrenez hurren) eta diagnostikoa- ren unean metastasia zutenak (% 22, eta % 14 aurreko urtean).

Kolon eta ondesteko minbiziaren baheketa, ezartzen zailena den arren eta hasieran inbertsio handiagoa eskatzen badu ere, eraginkorra da kostuei dagokienez; izan ere, hilkortasuna % 16 eta % 33 bitartean murriztea lortzeaz gain, minbizi kasu ugariaren agerpena prebenitzen du, programa horren bidez minbizi aurreko polipo asko erauzten baitira, halako moduz non polipo horiek ez diren inoiz iritsiko minbizia garatzera.

Nafarroan, kolon eta ondesteko minbiziaren baheketa-programa 2021eko martxoan abiarazi da, urtebetez erabat geldirik egon ondoren. Nazio mailan, hori Gaztela-Mantxan eta Nafarroan besterik ez da gertatu.

Kalkuluen arabera, programa Nafarroan geldirik egon den urtebetean diagnostikatu gabe geratu dira 500 bat minbizi kasu berri eta minbizi aurreko 2.000 polipo.

Nafarroan aurrenekoz ezarri zen minbiziaren detekzio goiztiarreko programa bularreko minbiziarena izan zen, 1990ean hasi baitzen. Programa hura aitzindaria izan zen eta estaldura zabalagatik

eta hilkortasuna murrizteko eraginkortasunagatik nabarmendu zen. 2019an, parte-hartzearen ehunekoa % 86,73koa izan zen, desiragarria den estaldura (% 75 baino gehiagokoa jotzen da) baino askoz ere handiagoa. Urte horretan, programaren bidezko bularreko minbiziaren antzemate-tasa milako 5,17koa izan zen; kasu horietatik, % 48,95 fase goiztiarrean antzeman ziren, eta % 64,44 gongoil-inbasiorik gabe.

Bularreko minbizia antzemateko baheketa-programa kolon eta ondesteko minbizia antzematekoa baino lehenago berrabiarazi bazen ere, pandemiaren lehen sei hilabeteetan programaren jardura % 80 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta, eta jardura ez da oraindik ere erabat berreskuratu.

Pandemian, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez ditu bermatu minbiziaren zentzuzko susmoaren zirkuituak Nafarroan.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du berehala berma ditzan minbiziaren antzemate goiztiarrerako programak Nafarroako hiru osasun barrutietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du plan berezi bat presta eta ezar dezan, bertutuko duena ezen, sei hilabete baino lehenago, bularreko minbiziaren antzemate goiztiarrerako programak pandemia aurretik zeukan jardura berrabiarazteaz gain, COVID-19arengatiko pandemian egiteke utzitako programaren jardura osoa berreskuratzen dela.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du plan berezi bat presta eta ezar dezan, bertutuko duena ezen, urtebete baino lehenago, kolon eta ondesteko minbiziaren antzemate goiztiarrerako programak pandemia aurretik zeukan jardura berrabiarazteaz gain, COVID-19arengatiko pandemian egiteke utzitako programaren jardura osoa berreskuratzen dela.

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kontu-hartzaile nagusiak jarritako eragozpen baten desadostasunari eta Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua baiesteari buruz 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitortpena egin dezan, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontu-hartzaile nagusiak jarritako eragozpen baten desadostasunari eta Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua baiesteari buruz 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitortpena egin dezan, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan ezarritzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du:

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren bidez, 2020ko azaroko likidazioari dagokion faktura ordaintzeko agindu zen, Nafarroako Gobernuak AP-15ean egindako deskontuen politikari dagokionez. Xedapen horrek agintzen zuen AUDENASari 1.207.168,40 euro ordaintzea, baina enpresak horretarako aurkeztutako faktura 6.284.728,28 eurokoa zen. Alde horren arrazoia Kontu-hartze eta Kontabilitateko zuzendari nagusiak 2020ko abenduaren 28an jarritako eteteko eragozpena

izan zen; izan ere, ez zuen onartzen proposatutako faktura, eta aipatutako 1.207.168,40 euroko zenbatekora murriztu zuen, egokitzen jo zuen formula aplikatu ondoren; izan ere, Audenasarekin hitzarmena egin zenetik gaur egun arte jarraitutako irizpidea ez zegoen arrazoituta, ez logikoki, ez juridikoki. Organo kudeatzaileak Kontu-hartzaile-tza Nagusiaren eragozpena onartu zuen, eta 41E/2020 Foru Aginduaren edukian jaso zen.

Foru agindu horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen Víctor Torres Ruiz jaunak, Audenasa ordezkatzuz, 2021eko otsailaren 4an, eta haren argudioen oinarria zen ez zetorrela bat kontu-hartzaile nagusiak egindako eteteko eragozpen-txostenarekin, eta emakida-kontratuaren 7. klausula ere aipatzen zuen, zeinak kontratuaren finantza-oreka babesten baitu deskontu-neurriek edo kontratu horretan jasotako formulak emakidadunari kalte egingo lioketenean. 2021eko otsailaren 10ean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak eta Gobernuak Audenasan duen ordezkariak txosten bana egin zuten, eta horien bidez Gobernuari proposatu zitoten baiets zezan gora jotzeko errekurtsua.

Berriz ere, Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzaitza Nagusiak, 2021eko otsailaren 19an, eteteko eragozpena eman zuen berriz ere, Gobernuak gora jotzeko errekurtsua onartzeko egindako erabaki-proposamenaren aurka, zeren eta "espedientearen administrazio-kudeaketarekin jarraitzeak kalte ekonomikoak eragin ahal izanzen baitizkio Nafarroako Ogasun Publikoari". Txosten horren aurrean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiak eta Audenasako gobernu-ordezkariak txosten bana egin zuten, eta horietan adierazi zuten ez zeudela ados, ez juridikoki, ez teknikoki, kontu-hartzaile nagusiaren fiskalizazio-txosten horretan azaldutako argudioekin.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 102. artikulua 2. zenbakiko b) letrak ematen dizkion ahalmenak erabi-

liz –horren arabera, Kontu-hartzailletza Nagusiaren eta organo kudeatzailearen arteko desadostasunak irauten duenean, organo horrek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari igorriko dio espedientea, eta hark Nafarroako Gobernuari aurkeztuko dio, behin betiko ebazpena eman dezan–, Nafarroako Gobernuari aurkeztu zion Kontu-hartzailletza Nagusiaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren artean sortutako desadostasuna, Nafarroako Gobernuak egokitzen jotzen zuen erabakia har zezan.

2021eko otsailaren 24ko erabakiaren bidez, Gobernuak honako hau xedatu zuen:

“Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Kontu-hartzailletza Nagusiaren artean sortutako desadostasuna ebaztea, Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa baieste aldera Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposatutakoaren bidean. Agindu horrek 2020ko azaroko likidazioari dagokion faktura ordaintzeko agindu zuen, Nafarroako Gobernuak AP-15rako zeukan deskontu-politika zela eta”.

Erabaki horren ondorioz, eta Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa ebatzita, honako hau erabaki zuen Gobernuak otsailaren 24ko bilkuran bertan:

“Onestea Víctor Torres Ruiz jaunak, zuzendari nagusi gisa eta Audenasaren ordezkari gisa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa. Agindu horrek 2020ko azaroko likidazioari dagokion faktura ordaintzeko agindu zuen, Nafarroako Gobernuak AP-15rako zeukan deskontu-politika zela eta. Fakturaren zenbatekoa 6.284.728,28 eurokoa zen. Errekurritutako foru-aginduan finkatutako zenbatekoa dagoe-neko ordaindu zaionez Audenasari, gainerako zenbatekoa ordaindu behar da, hau da, 5.077.559,88 euro”.

Horrela, Gobernuak ordaindu zuen Audenasak hasieratik erreklamaturako guztia, nahiz eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak, hasiera batean, onartu egin zuen Gobernuak kontu-hartzaile nagusiak egindako eragozpenaren edukia, eta 41E/2020 Foru Agindua eman zuen 2020ko abenduaren 31n.

Joan den 2021eko martxoaren 31n, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak agerraldia egin zuen Parlamentuan, AP-15 autobideko deskontu-politikarengatik Audenasari eman beharreko konpen-

tsazioaren berri emateko, bai eta Gobernuak 2021eko otsailaren 24ko erabakiak hartzeko arrazoi berri emateko ere. Erabaki horien bidez, Kontu-hartzailletza Nagusiaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren arteko desadostasuna ebatzi zen, aipatutako faktura Audenasari ordaintzeari zegokionez, eta baietsi egin zen merkataritza-enpresa horrek aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa.

Agerraldian zehar kontseilariak behin baino gehiagotan adierazi zuen “C” kaptazio-koefizientearen balioa aplikatuta egindako aldaketa, 2020. urterako egina (Nafarroako autobidearen lehenengo fasea eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko emakida kontratua aldatzeko eta aldaketa horri lotutako beste konpromiso batzuk hartzeko erabakiaren 1-5 eta 1-6 eranskinean jasotako formularen ageri da –erabaki hori 2000ko otsailaren 28an sinatu zen, AP-15 autobideko deskontuak konpentsatzeko–, bai eta 2007ko ekainaren 18an Nafarroako Gobernuaren erabakiz egindako aldaketan ere), aipatutako formularen aplikazio zorrotzari zor zitzaiola eta halaxe zegoela jasota aplikatzekoak diren hitzarmenetan.

Aldiz, Audenasarekin sinatutako hitzarmen ugarietako bakarrean edo emakida-kontratuan bertan ere ez da ezartzen AP-15 autobideko trafikoa, nabarmenki edo ez, murriztu den kasuetan, AP-15 autobidean deskontuak konpentsatzeko adostutako formularen “C” kaptazio-koefizienteak “1” balioa hartu behar zuela 2014tik aurrera, eta ez “1,65” balioa, 2007ko hitzarmenean ezarri zen bezala. Izan ere, beste ekitaldi batzuetan, 2009tik 2012ra bitartekoetan adibidez, trafikoa ere murriztu egin zen, eta “C” koefizientea ez zen inoiz “1” izan, baizik eta “1,60”, 2009ko ekainaren 1etik 2014ko maiatzaren 31ra aplikatuko zela hitzartu zen bezala.

Beraz, formularen aplikazioa aldatu egin da, Audenasak nahi zuen bezala, merkataritza-sozietate horrekin sinatutako hitzarmenen edukia aldatzeko lege ezarritako prozedura errespetatu gabe, eta ez zen, ezta ere, kontratuei buruzko araudi orokorra aplikatu administrazio-kontratuak interpretatzeko ahalmenari dagokionez (horrek berekin ekarriko zukeen administrazio-espediente bat instruitu behar izatea, kontratistari entzunda, baita Nafarroako Kontseiluaren irizpen bat emanda ere, kontratistak aurka egin izan balu). Era berean, ez da aintzat hartu Koronabirusaren (COVID-19) osasun-krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premia neurriak onesten dituen apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legearen 2. artikulua-ren 5. apartatuan administrazio-emakidei dagokionez ezarritakoa aplikatzea.

Nafarroako Gobernuaren jarduketa horiek guztiek eragin dute Nafarroako Ogasunak 5.077.559,88 euroko gainordainketa bat egin behar izatea, AP-15 autobideko deskontuengatik Audenasa emakidadunari eman beharreko konpentsazioak kalkulatzeko hitzartutako formularen "C" koefizientearen edukia aldatuz.

39/2015 Legearen 107. artikulua honako hau dio: "Administrazio publikoek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunen alde eman diren egintzak, deuseztagarriak baldin badira 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrez interes publikorako kaltegarri deklarata".

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 124. artikulua honako hau ezartzen du:

1. Foru Administrazio Publikoaren egintza deuseztagarrien kaltegarritasun aitortpena egiteko prozedurak egintzaren egilea izan den organoak hasiko ditu.

2. Egintza deuseztagarrien kaltegarritasuna aitortzeko eskumena, egintza zein organok eman duen, hango departamentuko kontseilari titularrari dagokio, salbu eta Nafarroako Gobernuak eman badu, kasu horretan aitortpena egitea Gobernuari berari egokituko baitaio".

Horretan guztian oinarrituta, ondoko mozioa aurkezten da, onesteko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du 2021eko otsailaren 24ko gobernu-erabakien kaltegarritasun aitortpena egin dezan, ondoren haiek administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratzeko. Erabaki horien bidez, honako hauek egiten ziren:

- "Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Kontu-hartzailetza Nagusiaren artean sortutako desadostasuna ebaztea, Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa baieste aldera Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposatutakoaren bidean. Agindu horrek 2020ko azaroko likidazioari dagokion faktura ordaintzeko agindu zuen, Nafarroako Gobernuak AP-15rako zeukan deskontu-politika zela eta".

- "Onestea Víctor Torres Ruiz jaunak, zuzendari nagusi gisa eta Audenasaren ordezkari gisa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioa. Agindu horrek 2020ko azaroko likidazioari dagokion faktura ordaintzeko agindu zuen, Nafarroako Gobernuak AP-15rako zeukan deskontu-politika zela eta. Fakturaren zenbatekoa 6.284.728,28 eurokoa zen. Errekurritutako foru-aginduan finkatutako zenbatekoa dagoneko ordaindu zaionez Audenasari, gainerako zenbatekoa ordaindu behar da, hau da, 5.077.559,88 euro".

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da COVID-19aren aurkako Txertatze Plana berrantola dezan.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita COVID-19aren aurkako Txertatze Plana berrantola dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2021eko apirilaren 15eko Osoko Bilkuran, ostegunez, eztabaidatzeko.

2020ren amaieraz geroztik, orduan lortu baitzen COVID-19rako lehenbiziko txertoa, beste batzuk agertzen joan dira, eragin-bide ezberdinak darabiltzatenak eta emaitza ezberdinak dituztenak. Denek, baina, guztiek betetzen dituzte epidemia kontrolatu ahal izateko eraginkortasun-irizpideak. 2021. urte hau abiatu genuenean txertatze-lastertasun posibleaz geneuzkan aurreikuspenak zapuztu egin dira hornidura ezberdinen eskuratze halamoduzkoagatik eta farmazia-konpainiek epeak ez betetzeagatik.

Txalotzen dugu Europar Batasunak eta ez bestek kudeatu izana txertoen gaineko negoziatzioa, eta pentsatzen segitzen dugu herrialde jakin batzuen amarruak gorabehera estrategia ona zela, herrialdeen artean banaketa ekitatiboagoa

ahalbidetzen zuena. Alabaina, txertoak oso astiro iritsi dira. Egia bada ere kopuruak handitzen joan direla eta areagotu egin direla apiriletik aurrera, txerto-kopuruak urriegia izaten segitzen du.

Britainiar aldaerak, zeinak Nafarroan ia erabat zokoratu baititu beste anduiak, askoz ere kutsakorragoa izaki, lehentasunezko egiten du txertatze-kopurua areagotzea.

Horri guztiari azken egunotan ezagutu ditugun bi albiste gehitzen zaizkio: Batetik, Sánchez lehendakariak iragarri du gobernu zentralak lanean diharduela alarma-egoera maiatzaren 9an bertan behera uzteko. Horren ondorioz, neurrien kontrola autonomia erkidegoen ardurapean utziko da. Bestetik, 87 milioi txertoren kontratazioa iragarri da. Apiriletik irailera bitartean jasotzekoak izanen dira, eta jomuga da uztailen 25 milioi pertsona txertaturik edukitzea, eta abuztuaren bukaeran, biztanleriaren % 70. Informazio horiek horrela, aurreikuspena da Nafarroara milioi bat txerto inguru iritsiko direla.

Ez da lehenbiziko aldia horrelako iragarpenak eginez aurreikuspen batzuk eragiten direla, gero betetzen ez direnak eta, horregatik, herritarren nekea, zapuzketa eta haserrea pizten dituztenak.

Aurrekoari gehitzen bazaio txerto desberdinak haiak iritsi ahala jarriak izaten ari direla, irizpide desberdinak eta kolektibo halaber desberdinak nahasirik, ondorioa da txerto-mapa izugarri katramilatsua eta zaila izatea jarraipen bat egiteko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen du Txertatze Plana berrantola dezan eta aurkez dezan txertoen eskuratze-aldiei buruzko aurreikuspen berrietara doitutako eredu bat, hilabete batean.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da osagarri bat bidera dezan, autonomoen, enpresa txiki eta ertainen eta nekazaritzako elikagaien enpresen zenbait kolektiborentzako laguntza-sorta baten bitartez, baldin eta gutxienez ere % 30eko fakturazio-beherakada jasan badute.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osagarri bat bidera dezan, autonomoen, enpresa txiki eta ertainen eta nekazaritzako elikagaien enpresen zenbait kolektiborentzako laguntza-sorta baten bitartez, baldin eta gutxienez ere % 30eko fakturazio-beherakada jasan badute.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

5/2021 Errege Lege-dekretuaren edukia aztertu ondoren, egiazta daiteke nola, ezarritako baldintzak betez gero bertan bildutako laguntzak jasotzeko moduan dauden sektoreen zerrendan, aipatu gabe uzten diren EJSN-Ekonomia-jardueren Sailkapen Nazionalako kode ugari, dagozkien pandemiaren aurkako osasun-neurrietatik eratorritako murriztapenen eragin larria jasan duten nekazaritzako elikagaien arloko jardueri. Zehazki, honako kode hauek Errege Lege-dekretuaren aplikazio-eremutik kanpo geratu dira:

EJSN	JARDUERA
1039	Fruta eta barazkien bestelako prozesatze eta kontserbazioa (mahaiko olibei dagokienez, ezen kalte handiak izan baitituzte HORECA kanalaren murriztapenen ondorioz).
1102	Ardogintza
1111	Haragien prozesatze eta kontserbazioa
1113	Haragizko produktuak prestatzea
1153	Gaztagintza
4622	Loreen eta landareen handizkako merkataritza

Nekez ulertzekoa da Nafarroarentzat hain garrantzitsuak eta ekonomiarentzat hain hil ala bizikoak diren sektore batzuk laguntza-sorta horretatik kanpo geratzea, inolako arrazoirik adierazi gabe justifikatze aldera zergatik nekazaritzako elikagaien arloko horrelako enpresek ezin duten horrelako laguntzak jasotzeko aukerarik berarik ere izan.

Izan ere, beste sektore batzuetan baino neurri handiago nahiz txikiagoan, pandemiak efektu mardulak izan ditu gure nekazaritzako elikagaien

enpresen jarduera ekonomikoan. Krisi honek izaten segitzen du, funtsean, HORECA kanalaren itxiera orokor, noizbehinkako eta masiboaren ondoriozkoa, eta hori gauzatu da esportazioek urte batetik bestera izandako % 12ko jaitsieran eta salmentek espainiar merkatuan izandako % 60ko beherakadan; gehienbat, adierazi den bezalaxe, HORECA kanalean.

Salmenta-bolumenaren galera hain mardul horrek, logikoa denez, enpresa horien errentagarritasuna beherantz eramaten du, batez ere HORE-

CA kanalaren mende daudenena, azken urte honetan globalki % 40 baino gehiagoko beherakada izan baitute beren fakturazioan.

Horregatik guztiagatik,

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osagarri bat bidera dezan, autonomoentzako, ETEentzako eta nekazaritzako elikagaien arloko enpresentzako laguntza-sorta

baten bitartez, konpentsazio bat emate aldera 1039, 1102, 1111, 1113, 1153 eta 4622 EJSN zenbakiak dituzten autonomoei eta nekazaritzako elikagaien arloko industriei, baldin eta gutxienez ere % 30eko fakturazio-beherakada jasan badute.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da trebakuntza eta prestakuntza emozionaleko plan bat gara dezan plaza itunduak dituzten egoitzetako langileentzat.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita trebakuntza eta prestakuntza emozionaleko plan bat gara dezan plaza itunduak dituzten egoitzetako langileentzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, 2021eko apirilaren 15eko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

COVID-19ak eragindako osasun krisiaren inpaktua oso larria izan da maila guztietan, bereziki sorrarazi dituen heriotzekin. Birus horren gogor-

tasunaren isla izan da adindunek pairatutakoa, eta bereziki mingarria egoitzetan eta zentro sozio-sanitarioetan.

Nafarroako Gobernuak erantzun azkarra eman zion zion ustekabeko egoera berri horri, eta neurri ugari abiarazi zituen, birusak hain zaugarria den populazio horrengan sorrarazten dituen ondorioak arintzeko asmoz. Laguntza-talde bat berehala jarri zen abian, langileria eta zuzendaritza taldeak indartzeko, tarteko baliabideak ezarri ziren kutsatuentzat eta babeseko materiala eskaini zen eskura egon bezain laster. Ahalegin horiek eginda ere, COVID-19ak inpaktu handia izan zuen egoitzetan, batez ere pandemiaren lehen kutsatze-kolpean.

Gaur egun egoitzetan badute txertatzeak emandako immunitatea eta lasaitasuna, baina pandemia-urte honek presio itzela ezarri die langile soziosanitarioei, zenbait kasutan haien ongizate fisiko eta emozionala eragiteraino. Arlo horretan lan egin duten profesional askoren errelatoan angustia eta frustrazioa agertzen dira, kaltetuaren eta zaintzaile profesionalaren rol bikoitza bizi izan dutelako, eta horrek tentsio berezia sorrarazi die.

Populazio orokorraren estresaren zama partekatzen dute, birus ezezagun batek ekarritako pandemia bati aurre egiterakoan, baina aldi berean gehitzen zaie lanean gaixotzearen beldurra, hiltzearen aukera, familia kutsatzearena, jakina, eta zaintzen zituzten pertsonetatik asko galdu izanaren dolua.

Horrek guztiak beldurra, angustia eta depresioa sorrarazi die eta, halaber, ekar ditzake trauma osteko estresaren edo desegokitzapen emozionalaren egoerak. Beraz, neurri proaktiboak hartu beharra dago langile soziosanitarioren ongizate psikologikoa babesteko, ustekabeko egoeren eta zama emozional handiaren menpean egon direnean.

Krisiaren une latzenetan Eskubide Sozialetako Departamentuak telefonoz lagun egiteko zerbitzu bat sortu zuen, krisi egoerak neurri handian arintzeko, baina krisia atzera egiten hasten denean langile horiei ere lagun egin behar zaie eta arreta psikologiko egokia eman, haien ongizate psikologikoa bermatzeko. Gainera, haien trebakuntza eta prestakuntza emozionala garrantzitsuak dira etorkizuneko balizko egoeretan tresna eraginkorrak izan ditzaten.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du trebakuntza eta prestakuntza emozionalerako plan bat gara dezan plaza itunduak dituzten egoitza guztietan, langileei tresna nahikoak emate aldera COVID-19aren ondorioz bizitutako bezalako krisiei aurre egin ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu planaren barruan kontuan har dadin talde-terapiak egitea, egoitzetako langileen ongizate emozionala eta osasun mentala lantzen ahalbidetuko dutenak.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Isabel Aramburu, Mikel Buil García eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da energia berriztagarriak sortzeko proiektuen garapenari laguntzeko ingurumen legeria bat presta dezan.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak Nafarroako Gobernua premiatzen baita energia berriztagarriak sortzeko proiektuen garapenari laguntzeko ingurumen legeria bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeta, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Inork ez zeukan zalantzarik gure planetaren etorkizuna deskarbonizaziora zegoela bideratuta: erregai fosilen desagertzea, prozesu industrial guztietan erabilitako energia pixkanaka jatorri berriztagarriko energiekin ordeztzea, klimatizazio-sistema guztiak halaber isuririk gabeko sistemekin edo sistema neutroekin ordeztzea, eta erabilitako elektrizitate guztia sistema berriztagarrien bitartez sortua izatea.

Eta, helburu horiek argi bazeuden ere, errealitatea zen aurrerapausoak nahi baino mantsoago zetoze, eta abiadura ezberdinetan, potentzia handien interes ekonomikoen arabera.

COVID-19aren pandemiak sorturiko mundu-mailako izugarriko krisia izan da gobernu guztiak zentzate bidean ipini dituen, eta ikusarazi die beharrezkoa dela prozesu horiek guztiak bizkortzea, mundu iraungarriago eta askoz ere osangarriago bat urgentziaz bilatzeko. Programa eta akordio autonomiko, nazional eta nazioarteko desberdinetan jasotako epe eta helburu guztiak

ukitu egin dira, haiek laburtzeko eta ezarritako helburuak lehenago erdietsi ahal izateko. Zalantzarik gabe, Europa gurutzada honen aitzindaritzan kokatu da, eta orain arte ezaguturiko laguntza-planik handiena abiarazi du, estatu kideek modua izan dezaten proposaturiko erronkari heldu ahal izateko inbertsioak eta planak egiteko beharrezkoak diren inbertsioei ekiteko.

Horrenbestez, plan guztiak bizkortu beharrean aurkitzen gara, eta horretarako beharrezkoak zaizkigu araudi lagungarriak, kontzientzia soziala eta komunitate honetako gehiengo soziala ordezkatzeko dugunon arteko konpromiso politikoak. Hala ere, nahitaezkoa da Europak kontinente berdeago baten aldeko bere apustua gauzatze aldera datozen 7 urteetan bideratuko dituen laguntzak artez banatzea. Laguntza horiek balio behar dute enpresa-munduari eta herritarrei beren eraldaketa errazteko eta proiektuak dinamizatzeko, zeinek nahitaez behar baitute lerrokatuta egon oinarritzko jasagarritasun-printzipio europarrekin.

Zoritxarrez, erronka ez dute guztiek modu berean onartzen, eta beren obsesio politiko eta identitarioak beraiek bakarrik ikusten dituzten interes ekonomiko ilunekin nahasten dituzte. Begi-bistakoa da energia berriztagarri gehiago garatzeko premiak behartzen duela haiek sortzeko potentzial guztia martxan jartzea, eta horrek beharrezko ditu herritarren konpromisoa, xafilen erabilera, autokontsumoaren aldeko apustua eta abar; baina, orobat eta nahitaez, haize- eta eguzki-parke berriak garatzea azalera handietan, zeinek afekzioak erakarriko baitituzte. Eta afekzio horiek lege bidez, eta lege bidez soilik, beharko liriateke mugatu. Zoritxarrez, jada ari gara ikusten beren burua sozialtzat aurkezten duten mugimenduak, arau gisa hartzen dutenak beren udalerrietan garatzekoa den proiektu ororen aurka jartzea, oinarri gisa aipaturik faunari, paisaiari nahiz

nekazaritza-ekoizpenari erakarriko litzaizkiekeen ustezko afekzio konponezin batzuk. Horrek guztiak ez du beste ezer eginen, proiektuak –eta beraz, guztion helburuak– atzeratu, proiektuak garestitu eta Nafarroaren garapen-aukerak mugatu baizik.

Horregatik guztiagatik,

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du energia berriztagarriak sortzeko proiektuen garapenari laguntzeko ingurumen-legeria bat presta dezan, aintzat hartuko dituen segurtasuna eta proiektuen izapidetzetik diskrezionalitatea kentzea, horrelakoetatik ez baita segurtasunik eza eta proiektuen moteltzea besterik eratoritzen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru intereseko inbertsio-tzat deklaratu ditzan, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 17/2009 Foru Legeko 4. artikulua ezarritakoaren ondorioetarako, gure komunitateak 2030era begirako Energia Planean ezartzen diren helburuak lor ditzan laguntzen duten proiektu guztiak, energia berriztagarrietan inbertitzekoak.

3. Nafarroako Parlamentuak errespetatu eta aitortu egiten du herritarrek eskubidea dutela edozein administraziok proiektu horien tramitazioari buruz hartutako erabakiengatik protesta eta kontraktotasuna adierazteko, legeriak horretarako ezartzen dituen bitartekoak erabiliz, baina bipil errefusatzen du eskubide horren egikaritzea gauzatu dadila halakorik ez egitea libreki erabakitzen duten herritarrei zuzenduriko derrigortze batean.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas
López de Goicoechea

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeko, emakumeen aurkako indarkeria-adierazpide berriak sartzeko.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeko, emakumeen aurkako indarkeria-adierazpide berriak sartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2021eko apirilaren 15eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ezagunak dira emakumeen eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioak, zeinen artean nabarmentzekoa baita “bizitza publiko eta politikoa” parte hartzeko eskubidea: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, CEDAW-Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Emakumearen Eskubide Politikoen Konbentzioa (1953), Vienako Adierazpena (1933) edo Beijingo Adierazpena (1995). 3

CEDAW-Emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioak 7. artikuluan ezartzen du estatu kideen erantzukizuna dela emakumearen honako eskubide hauek mantentzea: hauteskundeetan botoa ematea eta hauteskunde publiko guztietan hautagai izatea, gobernu politikak taxutzen eta funtzio publikoan parte hartzea eta funtzio publiko guztiak betetzea.

Emakumeen aurkako jazarpen eta indarkeria politikoaz ari garenean –emakumeen aurkako indarkeria politikan, horrela ere ezagutzen da– emakumeek beren eskubide politikoak baliatzen dituztenean pairatzen duten indarkeriaz eta jazarpenaz ari gara. Indarkeria politikoak, besteak beste, indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, morala, ekonomikoa edo sinbolikoa eragin ditzake.

Hala, Emakumeen aurkako indarkeriari eta jazarpen politikoari buruzko Adierazpenak, zeina Belém do Pará-ko Konbentzioko Estatu Kideen VI. Konferentzian sinatu baitzen 2015eko urrian, ezartzen duenez, “generoan oinarritzen da, eta emakumeen eskubide politikoak gutxitzea edo kentzea du xede edo emaitza”; hortaz, indarkeria hori gertatzen da emakume izateagatik eta espazio publiko eta politikoa parte hartzeagatik.

Kuoten eta parekotasun legeei esker, emakume gehiago sartu da espazio politikoetara; halere, orobat ikusi da emakume asko eta askok uzten dutela politikagintza, bertan sartu eta gutxira. Azterlan batzuen arabera, indarkeria eta jazarpen politikoa dira emakumeek politikagintzan sartzen direnean gairak beharreko eragozpenik handienetako bat.

Halatan, Bizitza politikoan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, zigortzeko eta desagerrarazteko 2016ko eredu-lege amerikarrak dio ezen parekotasuna ez dela “neurtzen soilik espazio publikoa eta politikoa –bereziki, zuzendaritzakarguak– okupatzen dituzten emakumeen kopuruagatik, eskubide politikoak egiaz baliatzeko berdintasun-baldintza jakin batzuk ere egon badaudelako. Emakumeen aurkako indarkeria bizitza politikotik desagerraraztea parekotasun-baldintza bat da, beraz”.

Testuak orobat adierazten du tokiko esparru politikoa dela emakumeek indarkeria gehiago pairatzen duten esparrua; bereziki, alkatetzan.

Nafarroan apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea daukagu emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko; bertan jasota ageri dira emakumeen aurka baliatzen diren indarkeria-adierazpide ezberdinak, baina beharrezkoa da legea beste indarkeria-adierazpide batzuetara hedatzea; esaterako, emakumeen aurkako indarkeria politi-

kan eta emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria instituzionala.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du, lege proposamen bat aurkeztuta, Emaku-

meen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzeko eta emakumeen aurkako indarkeria-adierazpide berri bi jasotzeko bertan: emakumeen aurkako indarkeria politikan eta emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria instituzionala.

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

